



726 ZK.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko uztailaren hogeita zazpian.

Jardunbide Irekiko prozedura jarraitu eta gero, 2010eko ekainaren 30ean Oiartzungo Udal Osoak hartutako erabaki bidez, ALT-4 "OLALDE" H.I.A.ren Hirigintza Ekintzarako Egitarauko 5. eta 12.A partzelak, CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresari behin-behingo esleitzea erabaki zen, bere proposamena izan baita aurkeztu den bakarra eta era berean, onuragarria delako.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluekin adostasunean, hamabost egun balioduneko epea eman zitzaion behin betiko bermea ezar zezan eta plegu administratiboen 13. klausulan ezarritako bestelako dokumentazioa aurkez zezan.

Horiek aurkeztuta, Legearen 135.4. artikuluen 3.parrafoaren arabera, aurreko epea igaro eta gehienez hamar egun baliodunetan behin-behineko esleipena behin betiko deklaratu da.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, eta Udal Osoak 2009ko maiatzaren 13an behin-betiko esleipeneko Alkatearengan egindako eskuordetzearen baitan, eta Udal Osoak 2009ko ekainaren 30ean hartutako erabakia berretsiz, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dituenaz, ALT-4 "OLALDE" H.I.A.ren Hirigintza Ekintzarako Egitarauko 5. eta 12.A partzelak CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresari behin betikoz esleitzea, 363.442,45€ prezioarekin (95 €/m²), BEZ kanpo eta 20 hilabeteko gauzatze-epearekin.

Esleipen hau jakinarazi eta hilabete bateko epean esleipendunak prezioaren % 50 ordaindu beharko dio Udalari, eta gainontzekoa eskritura publikoak egiterakoan.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

